

Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia Gaztañagak irabazi zuen

41 sagardotegik hartu zuten parte, laugarren urtez egin zen txapelketan, eta 228 pertsonak osatu zuten epaimahai herrikoia

J.S. | DONOSTIA

Andoingo Gaztañaga sagardotegiak irabazi zuen irailaren 29an Usurbilen jokaturako Euskal Herriko IV. Sagardo Txapelketa Herrikoia final handia. Lehiaketa honetan Euskal Herri osoko 41 sagardotegik hartu zuten parte eta epaimahai herrikoia 228 lagunek osatu zuten.

Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek antolatutako txapelketako finalaren aurretik, lau finalurreko egin ziren, Beasainen, Goizuetan, Oñatin eta Urnietan. Finalurreko bakoitzean lehen biak automatikoki sailkatu ziren final handira eta puntuazioaren arabera.

Azkenean, irailaren 29an Usurbilen jokaturako finalean, Andoingo Gaztañaga sagardotegia izan zen epaimahai herrikoia puntuazio onena lortu zuena, Adunako Aburuza eta Astigarragako Irigoien-Herrero sa-

gardotegiaren aurretik. Aurreko urteko edizioan ere Gaztañaga izan zen irabazlea.

Lehen hiru sailkatu hauek Hazi Fundazioaren eskutik jaso zituzten Eusko Label eta kalitatezko zigilua duten produktuen sorta bana, baita Gipuzkoako Sagardogileen elkartearen oroigarria eta Usurbilgo Udalak ekitaldi honetarako bereziki landu zituen hiru oroigarriak: Uxoia Zumetak egindako Joxe Luix Zumetaren lanen serigrafiak.

Epaileek ere izan zuten beren saria, sagardo irabazlearen puntuazioa gehien hurbildu ziren mahaikideei txapelkunaren sagardoa oparitu baitzitzaizen.

Herritarren neurria

Txapelketan parte hartu zuten 41 sagardotegietako sagardoak Usurbilgo frontoira afaltzera inguratu ziren guztien artean dastatu eta puntuatu zituzten. Herritarrek parte hartu zuten, beraz, baldintza bakarra sagar-



Txapelketako hiru irabazleak: erdian Gaztañagakoak, eta alboan Aburuza eta Irigoien-Herreroko ordezkariak.

GARA

doaz gozatzea duen txapelketa herrikoia honetan.

Antolatzaileek diotenez, txapelketa herrikoia sagardoaren irrika herriari itzultzera dator: «Afaltzera eseri eta ateratzen dituzten sagardo desberdinak dastatu eta nork bere gustu eta

iritziaren arabera nahi duen puntuazioa ematen dio, bostetik hamarrera».

Laugarren urtea da Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia antolatzen duela, lehengo ohitura bati heldu


eta bidea eginez. Izan ere, historikoki horrelako txapelketak egin izan dira: 1967tik aurrera zenbait txapelketa herrikoia antolatu zituen orduko Sagardogileen Elkartek, herri desberdinekin elkarlanean, eta sare hori berreskuratzea da asmoa.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO SARIAREN ZIGILUA, ZELAIARENTZAT

Gipuzkoako Foru Aldundiko sagardo txapelketa XVII. edizioa iritsi zen joan den 2018an eta hainbat berrikuntza izan zituen; izan ere, lehenbiziko aldiz irabazleari Foru Aldundiko saria irabazi duela ziurtatzen duen zigilua oparitu zitzaion.

Edizio honetako irabazlea Hernaniko Zelaia sagardotegia izan zen eta Oihana Gainerainek hiru mila euroko saria, garaikurra eta txapela ez ezik, opari berria jaso zuen: irabazlearen egiaztagiri zigilu bat, saria jaso ondorengo kanpainan erabiltzea izango duena. Bigarren eta hirugarren postuak, Astigarragako Zapiain eta Andoingo Gaztañaga sagardotegiek lortu zituzten.

Zigilua ez zen edizio honetako berrikuntza bakarra izan. Lehenengoz, parte hartzaileek bertako



sagarrarekin bakarrik egindako sagardoak aurkeztu zituzten. Txapelketan parte hartu zuten 24 sagardotegiek, beraiek egindako sagardo naturalak aurkeztu zituzten, botilatuta, aurrez Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzaileak baloratutakoak. Aurkeztutako sagardo guztiak 2017ko uztakoak ziren.

Halaber, sari banaketa ekitaldia eta amaierako dastatze saioa ere desberdinak izan ziren, lekuari eta formatuari dagokionez. Oraingo honetan, amaierako dastaketa ez zen jendaurrean egin, Gastronomika elkartean, aurreko edizioetan egin izan den moduan; Fraisoroko Nekazaritza eta Ingurumen Laborategiko instalazioetan egin zen, dastaketaren baldintzak hobetzerren.

Garaia da. Lehen sektorea, baserriaren jardura eta hemengo produktuak sustatzeko garaia.

ORAINBERTAKOAK

gipuzkoa.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA